



**Maiz sortzen diren arazoak eta zalantzak  
fakturen alta eta baliogabetze zerbitzuetan**

**TicketBAI**



## KOMUNIKAZIOAK

Arazoa	Arrazoa	Konponbidea
http 415 errorea mezuaren bidalketan	Bidalketan ez da sartzen Content-Type goiburu zuzena	Ezarri http goiburu hau bidalketan: Content-Type: <b>Application/xml; charset = UTF-8</b>
Faktura ez da onartu mezu hau erakutsiz: <b>001: Ez da erabili bezeroaren ziurtagiririk.</b>	Rest zerbitzuaren zehaztapenak adierazten du fitxategia sinatuta joateaz gain, bidaltzean bezero-ziurtagiria duen https protokoloa erabili behar dela. Jasotzen duten mezuak adierazten du https protokoloa erabiltzen ari direla bezero-ziurtagiririk gabe, eta, beraz, bidalketa baztertu egiten da.	https protokolo-bidalketan bezero-ziurtagiria erabiltzea



## XML ESKEMAK

Arazoa	Arrazoa	Konponbidea
<p>Faktura ez da onartu, eskema-okerra mezua, eskeman aukerakoa den eta mezuan adierazten ari den baina hutsik dagoen elementu bati buruzkoa, adibidez:</p> <p><b>Mezuak ez du betetzen XSD eskema. Akatsaren xehetasuna: cvc-pattern-valid: Value '00-00-0000' is not facet-valid with respect to pattern '\d{2,2}-\d{2,2}-\d{4,4}' for type 'FechaType'</b></p>	<p>Eskeman elementu bat aukerakoa denean, erabat ezabatu daiteke, baina ez da baliozkoa zuriz adieraztea.</p>	<p>Bidaltzen den mezuari aplikatu ezin zaizkion aukerako elementuak ez adierazi, zuriz adierazi beharrean.</p>
<p>Baliogabetzea ez da onartu mezu hau erakutsiz:</p> <p><b>002: Mezuak ez du betetzen XSD eskema. Akatsaren xehetasuna: cvc-elt.1: Cannot find the declaration of element 'AnulaTicketBai'</b></p>	<p>Errore hori eman dezake baliogabetze-mezua fakturen alta-zerbitzura bidaltzen ari bazara.</p>	<p>Mezu mota bakoitza proba-helbide batera bidali behar da:</p> <p>Adibidez PROBETAKO: ALTA: <a href="https://tbai-prep.egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/HTBRecepcionFacturasWEB/rest/recepcionFacturas/alta">https://tbai-prep.egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/HTBRecepcionFacturasWEB/rest/recepcionFacturas/alta</a> BALIOGABETZE: <a href="https://tbai-prep.egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/HTBRecepcionFacturasWEB/rest/recepcionFacturas/anulacion">https://tbai-prep.egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/HTBRecepcionFacturasWEB/rest/recepcionFacturas/anulacion</a></p>



## DATUETAKO ARAZOAK

Arazoa	Arrazoa	Konponbidea
Faktura ez da onartu mezu hau erakutsiz: <b>003: Xehetasun lerroak falta dira.</b>	Ticketbairen XSD eskemak xehetasun-lerroak aukerakotzat hartzen ditu, baina Gipuzkoan nahitaezkoa da datu hori adieraztea.	Mezuan xehetasun-lerroak adierazi.
Baliogabetzea ez da onartu mezu hau erakutsiz: <b>018: Faktura ez dago erregistratuta sisteman</b>	Erroreak adierazten du ez dela aurkitu aurretik bidalitako fakturarik bere gako funtzionalean bat datorrenik: igorlearen IFZ+serie+faktura zkia + jaulkipen-data ezeztatu nahi den fakturarekin.	Alta-zerbitzuaren bidez aurretik bidalitako fakturak bakarrik baliogabetu daitezke. Serieko eta fakturako datuak berdin-berdin adierazi behar dira altan eta baliogabetzean. Ez da gomendatzen faktura-zenbakiak zeroekin edo espazioekin betetzea.

## SINADURA ELEKTRONIKOA

Arazoa	Arrazoa	Konponbidea
Faktura ez da onartu mezu hau erakutsiz: <b>002 Enveloping sinadura ez dago baimenduta</b>	Enveloping sinaduradun mezu bat bidaltzen ari da Envelopeden ordeiz. Ticketbaik Enveloped sinadura baino ez du onartzen.	Enveloped sinadura erabili
Faktura jaso da, baina emaitzak hau adierazten du: <b>008 El mensaje ha sido modificado en tránsito o la firma no está bien realizada -- Reference URI="" failed to verify.</b> Baina jatorrian konprobatu da sinadura baliozkoa dela.	Litekeena da kodifikazioa aldatu izana bidalketa-prozesuan. Bidalketa-prozesu osoan UTF-8 kodifikazioa errespetatu behar da. Sinatu ondoren, ezin da inolako aldaketarik egin; esaterako, azentuatuen ordeiz azentu gabeko letrak jartzea, espazioak edo linea-jauziak kentzea.	Bidalketan honako http goiburua sartuko dela ziurtatu: <b>Content-Type: Application/xml; charset = UTF-8</b> Ziurtatu, fitxategi egoki bat sortu bada ere, bidalketa-programak ez duela kodifikazioa aldatzen bidaltzean. Fitxategia sinatu ondoren edukian aldaketarik ez dela egiten ziurtatu,.



## BESTE BATZUK

Arazoa	Arrazoa	Konponbidea
Faktura jaso da, baina emaitzak hau adierazten du: <b>010 Posible da Kateamendu errorea gertatu izatea</b>	Fakturazio-sistema batek bidalitako lehen faktura bada, normala da mezu hau jasotzea.	Abisu hori lehen fakturan bakarrik gertatzen bada, zuzena da. Lehen faktura horrek kateatze desegokiari buruzko informazio-abisua sortuko du (normala da hori), eta hurrengo fakturek jada ez dute inolako abisurik emango, behar bezala kateatuta doazelako. Hurrengo fakturretan gertatzen bada, berrikusi kateatzen dela zehaztapenen arabera
Faktura jaso da , baina emaitzak hau adierazten du: <b>012 Errorea gertatu da TicketBAI softwarearen altainskripzioan: Datuak ez datoz bat</b>	Fakturan adierazten diren IFZ eta softwarearen izena bat etorri behar dira softwarea erregistratzean adierazi direnekin.	Berrikusi enpresaren IFZ eta softwarearen izena bat datozela bidalitako fakturaren eta lizentzia lortzean erregistratutako datuen artean.